

Gaur ireki da inskripzioa epea Kirol-hezitzailea aditu tituluan

2016/09/08

Gaur, hilak 8, ireki da epea izena emateko Kirol-hezitzailea aditu tituluan; interesatuek urriaren 13a arte izango dute aukera graduandoan inskribatzeko. Aditu titulu honen helburua da formatzea kirol esparruan pertsona anitzekin eta testuinguru anitzetan arituko den profesionalak; profesional hori ikuspegi berritzaile batetik abiatuko da pertsonen garapen integrala bultzatzeko eta gizarte inklusiboago bat eraikitzen laguntzeko. Eskolak urriaren 20an hasiko dira.

Kirol-hezitzailea aditu titulua zuzenduta dago kirol eta hezkuntza munduko profesionaleri, lan egiten dutenak honako esparruetan: gorputz hezkuntzan eta eskola-kirolean, administrazioaren kirol sailetan (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak, mankomunitateak), kirol enpresa eta erakundeetan, kirol elkarte zein federazioetan, aisialdiko jarduera eta ekintzak antolatzen dituzten elkarteetan, hezkuntza eragileez osatutako foro eta lan-taldeetan, komunitatearen garapenarekin lotutako proiektuetan...

Metodologiari dagokionez, graduondoak eskainiko ditu saio presentzialak, praktika eta esperientzia interesgarriak, eztabaida-mintegiak. Gainera, ikasle bakoitzak egin beharko ditu praktikak eta proiektu bat.

Aurrez aureko eskola emango dira, ostegunetan, Aretxabaletako campusean, 17:00etatik 21:00etara.

Adituak eskatzen du 250 orduko dedikazioa. Horietatik, 125 ordu bideratuko dira aurrez aurreko eskoletara, beste 100 ordu praktikak eta bukaerako lana egiteko eta, azkenik, 25 ordu modu ez presentzialen egin behar diran lanak egiteko (irakurketak, ariketak...). Guztira, adituak ditu 10 ECTS.

Informazio gehiagorako:

- [Kirol-hezitzailea aditu tituluaren gaineko informazio guztia.](#)
- [Kirol-hezitzailea aditu tituluaren eskorrian \(pdf\)](#)
- [Naiz agerkarian aditu tituluko koordinatzaileei egindako elkarrizketa.](#)



Izen-emate epea irekita egongo da urriaren 13a arte.